



DATUEN ETA ALGORITMOEN ERABILERARI BURUZKO MANIFESTU ETIKOA

Data: 2020ko apirila

AURKIBIDEA

<i>INDICE</i>	- 1 -
<i>INTRODUCCIÓN</i>	- 2 -
<i>ALCANCE Y ESTRUCTURA DEL MANIFIESTO</i>	- 2 -
<i>MANIFIESTO ÉTICO DEL USO DE DATOS Y ALGORITMOS POR EL GOBIERNO DE NAVARRA</i>	- 2 -
1. Protección de los datos.....	- 3 -
2. Apertura de los datos y reutilización.....	- 4 -
3. Gobernanza de los datos.....	- 4 -
4. Una IA para la ciudadanía y el bienestar social y ambiental.....	- 5 -
5. Promover la innovación gracias a los datos y la IA	- 6 -
6. Rendir cuentas de los sistemas de IA	- 6 -
<i>GLOSARIO</i>	- 7 -



HITZAURREA

Administrazio publikoen barruan zein kanpoan sortzen diren datuen hazkunde esponentziala erronka berri bat da erakunde guztientzat. Nafarroako Gobernua datuak tratatzeko tresna berriak ari da garatzen, herritarrentzako berme guztiekin.

Datuen tratamenduak eta Adimen Artifizialak planteatzen dituzten erronka berriei heltzeko, Nafarroako Gobernuak garatu duen dokumentu honetan aurkezten dira Gobernuaren gidalerroak izanen direnak datuak kudeatzeko politiketan.

Datu masiboen tratamenduak eta Adimen Artifizialak dakartzaten eraldaketek marko etiko bat eskatzen dute, jasangarritasunarekin, berdintasunarekin, berrikuntzarekin eta kudeaketa onarekin bat datorrena.

MANIFESTUAREN IRISMENA ETA EGITURA

Manifestu honetan formulatzen dira datu pertsonalak zein publikoak kudeatzearen gidalerroak, bai eta Adimen Artifizialeko algoritmoen erabilera ere.

Honako hauek dira sei oinarri nagusiak:

1. Datuen babesa
2. Datuak irekitzea eta berrerabiltzea
3. Datuen gobernantza
4. Adimen Artifiziala herritarren eta gizarte- eta ingurumen-ongizatearen alde
5. Datuei eta Adimen Artifizialari esker berrikuntza sustatzea
6. Adimen Artifizialeko sistemen kontuak ematea

Manifestu honek hiru adierazpen mota bereizten ditu:

1. Nafarroako Gobernuari eska dakizkiokeen betebeharrak
2. Herritarren eta erakundeen eskubideak
3. Aurreranzko bidean hartutako konpromisoak

Adimen Artifizialari lotutako printzipioak, prozedurak eta araudiak aldian-aldian eguneratuko dira, Europar Batasunaren eta erreferentziazko beste entitate eta erakunde batzuen gomendioen eta ekimenen arabera..

Gobernuak hitzarmen bat sustatuko du toki entitateekin, Manifestu honi atxikitzeko sistema metodoei begira. Halaber, Espainia eta Europa mailan hitzarmenak sinatzeko aukera aztertuko du.



NAFARROAKO GOBERNUAREN MANIFESTU ETIKOA: DATUEN ETA ALGORITMOEN ERABILERA

1. Datuen babesa

[BETEBEHARRAK] Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra modu aktiboan betetzea bermatzen du Nafarroako Gobernua. Horretarako:

- Datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna zaintzen du.
- Arrisku posibleak aurrez ebaluatu eta pribatutasun-baldintzak aktibatzen ditu produktuen eta zerbitzuen diseinuko lehenengo etapetatik aurrera.
- Zerbitzuek ongi funtzionatzeko behar diren datu pertsonalak soilik biltzen ditu, eta tratamenduaren helburuetarako beharrezkoa den bitartean bakarrik.
- Behar beste baliabide erabiltzen ditu eta langileak kontzientziatu eta behar bezala prestatzen ditu, DBEO eraginkortasunez betetzen dela bermatzeko.

[ESKUBIDEAK] Herritarrek beren datuen gainean dituzten eskubideak zaintzen ditu Nafarroako Gobernua. Indarrean dagoen arautegiak agintzen duenaz gain, eskubide hauen defentsa egiten du:

- Tratamendu-arduradunarengandik jakin ahal izatea norberari buruzko datu pertsonalak tratatuak izaten ari diren eta, hala bada, datuen eta tratamenduaren ezaugarrien berri jakitea.
- Tratamendu-arduradunak bidegabeko luzapenik gabe zuzentzea edo ezabatzea norberari buruzko datu okerrak.
- Norberari buruzko datu pertsonalak tratatzeari uko egitea, bere egoera bereziari lotutako arrazoiak direla eta.

[KONPROMISOAK] Nafarroako Gobernua datu pertsonalen inguruan herritarrak ahalduntzea sustatuko du. Horretarako:

- Proiektu batzuk garatzen lagunduko du, herritarrei beren datuak zer egoeratan eta zer baldintzarekin argitaratu edo erabiliko diren zehaztea ahalbidetzen dietenak.



2. Datuak irekitzea eta berrerabiltzea

[BETEBEHARRAK] Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea modu aktiboan betetzea bermatzen du Nafarroako Gobernuak. Horretarako:

- Datu publikoak irekitzea agintzen du, gizarteak berrerabil ditzan.
- Bere esku dituen erabilera libreko datu guztiak argitaratzen ditu pixkanaka-pixkanaka, eta herritarrei horiek ezagutzen laguntzeko neurriak abiarazten ditu.
- Edozein pertsonak ekintza publikoaren baliabideak eta emaitzak jakin ahal izatea sustatzen du, balio soziala sortuz eta jardunbide demokratikoak eta arduratsuak indartuz.

[ESKUBIDEAK] Nafarroako Gobernuak beharrezko bitartekoak jarriko ditu herritarren eta erakundeen eskura, datu publikoak baliatzeko eskubideak gauzatu ditzaten. Besteak beste:

- Nornahik datu publikoak eskuratu eta oraindik argitaratu gabeko datuak eskatu ahal izatea, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen arabera.
- Pertsonak eta erakundeak erantzunkidetasunez lagundu ahal izatea kudeaketa publikoari, Administrazioaren funtzionamendua ikuskatuz, proiektuen eta zerbitzuen kontuak emateko datuetan oinarriturik.

[KONPROMISOA] Nafarroako Gobernuak datu publikoak berrerabiltzea sustatuko du, gizartea eta enpresak berriztatzeko. Horretarako:

- Berrerabilera sustatzeko asmoz hedatuko du informazio publikoa, balio soziala eta ekonomikoa sortuz, ekonomiaren ehuna indartuz, enplegua sortuz eta garapen inklusiboa bultzatuz.
- Datuen erabilera sustatzeko ekintzen barruan, konfiantzan oinarritutako berrerabilera ekosistema bat sustatuko du, herritarrak seguru senti daitezen beren eskubideak baliatzean eta enpresek zerbitzuak sor ditzaten datu eskuragarri, iraunkor eta fidagarrietan oinarriturik.

3. Datuen gobernantza

[BETEBEHARRAK] Nafarroako Gobernuak bere esku dauden datuen kalitatea bermatzen du, erabakiak ongi oinarriturik egon daitezen.

- Zerbitzu publikoak ematean eta politika publikoak garatzean sortutako datuen jabetza publikoa ziurtatzen du.
- Datuak zehatzak, osoak, eguneratuak eta iraunkorrak direla ziurtatzeko sistemak abiarazten ditu.
- Datuen segurtasun-arrisku posibleak murrizteko neurriak hartzen ditu, zibereraso posibleen aurrean proportzionalak diren neurrien bidez.



[KONPROMISOA] Nafarroako Gobernuak datuen gobernantza ona zainduko du, datuen kalitatea, sistemaren jasangarritasuna eta berrikuntza sustatuz. Horretarako:

- Datuen gobernantzaz arduratzeko unitate bat izendatuko du, baliabideak eman, eta prozesuak eta helburuak definituko zaizkio.
- Guztion onura helburu, erakunde hori elkarlanean ariko da herritarrek datuen gobernantza kolektiborako sortutako erakundeekin.
- Datuen kudeaketa automatizatzeko eta estandarizatzeko prozedurak bultzatuko ditu.
- Datuen kalitate-estandarrak zehaztuko ditu, baita sentsoreek edo aplikazioek bete beharreko baldintza teknikoak ere, datuak informazio prozesuetan sar daitezen eta erabakiak hartzean kontuan har daitezen.

4. Adimen Artifiziala herritarren eta gizarte- eta ingurumen-ongizatearen alde

[BETEBEHARRAK] Nafarroako Gobernuak algoritmoen arriskuak saihestu eta haietatik babesten du, kalteak saihestean oinarritutako konfiantza-giro bat sortzeko. Horretarako:

- Aurrez ebaluatzen ditu algoritmoen arriskuak pribatutasun, berdintasun eta segurtasun mailan, kalteen probabilitatea murrizteko.
- Adimen Artifizialaren erabilera mugatzen du ezarritako balio-sistemaren kontra ez doazen helburuetara, eta pertsonentzat eta ingurumenarentzat kaltegarri ez direnara.

[ESKUBIDEAK] Nafarroan bizi-kalitatearen estandar handien eta ondasun komunak ugaritzearen alde egiten da, berrikuntzaren bidez.

- Herritarrek eskubidea dute beren ongizatea bilatzeko eta beren autonomia pertsonala handitzeko, berrikuntza aplikatzeari esker.
- Egungo eta etorkizuneko belaunaldiak eskubidea dute planeta jasangarria izateko eta Adimen Artifizialeko proiektuek garapen jasangarriaren adierazleak hobetzeko.

[KONPROMISOA] Nafarroako Gobernuaren ardura izanen da Adimen Artifizialak berdintasuna eta jasangarritasuna bultzatzea, eta egiaztagarriak diren baldintza batzuk ezarriko ditu.

- Algoritmoak ebaluatuko ditu, diskriminazioa eragin dezakeen joera bidegaberik egon ez dadin.
- Inklusioaren eta berdintasunaren aldeko ekintzak sustatuko ditu, baita indarkeriaren eta genero arrakalaren kontrakoak ere.
- Adimen Artifizialeko proiektuek Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzen lagundu dezaten zainduko du.
- Herritarrentzako sentsibilizazio kanpainak egingen ditu, algoritmoen eta Adimen Artifizialaren inguruko oinarritzko jakintza batzuk hedatzeko: prozedurak, eskubideak, eta parte hartzeko eta erreklamatzeko bideak; horrela arrakala digitala murrizten lagunduko da.
- Nafarrentzako eskubide-esparru bat sustatuko du, bai eta hura nazioartean maila gorenean homologatzea ere.



5. Datuei eta Adimen Artifizialari esker berrikuntza sustatzea

[BETEBEHARRAK] Nafarroako Gobernua eragile aktiboa da berrikuntzan, bere zerbitzuak hobetzeko eta bere helburuak hobeto betetzeko.

- Adimen Artifizialeko inbertsio publikoak ondasun komuna bilatzen du. Edozein kasutan, berrikuntza-politikak bat datoz kudeaketa publikoaren helburuekin.

[KONPROMISOA] Nafarroako Gobernuak Adimen Artifizialari buruzko ezagutza eta konfiantza sustatuko du, Nafarroa erreferente izan dadin berrikuntzan eta talentua eta inbertsioak erakar ditzan.

- Adimen Artifizialaren erabilera sustatuko du pertsona guztiarentzako enplegu duineko politiketan, suntsitutako lanpostuen aurrean konponbideak emanez.
- Beste eragile batzuekin (publikoak, pribatuak, elkarteetakoak...) berrikuntza-sareetan ariko da eta lankidetzaz sustatuko du.
- Modu subsidiarioan ariko da berrikuntza-sisteman, eta ez da ekimen pribatuaren lehiakide izanen bere eskumenetik kanpoko esparruetan.
- Oinarriak eta arauak hedatuko ditu Nafarroako Gobernuan, bai eta beste eragileen artean ere, ikuspegi partekatua bat sortuz, non aurrerapenak askatasunezko logika batez gertatzen diren.

6. Adimen Artifizialeko sistemen kontuak ematea

[KONPROMISOA] Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du gardena eta irekia izateko datuekiko berrikuntza-politikari dagokionez.

- Algoritmoen erabilera dokumentatu, haien erabilera formalki onartu eta informazio hori argitaratu egingen da.
- Funtzionamendu egokiko bermeak eskuratuko ditu, algoritmoen giza kontrolerako mekanismoen eta adostasun adierazpenen bidez.
- Etika kontuz arduratzen den administrazio organo bat izendatuko da.

[ESKUBIDEAK] Herritarrek sisteman eragile aktibo izateko eskubidea dute.

- Herritarrek parte hartzeko eta zalantzei, iradokizunei eta salaketei erantzuteko tresnak ezartzen dira.

[KONPROMISOA] Nafarroako Gobernuak Adimen Artifizialaren arloan kontuak ematea sustatuko du, bai eta ikaskuntza partekatua bat sortzea ere, hirugarrenen lankidetzari esker.

- Legeak betetzen direla ziurtatzeko sistema bat ezarriko du, Adimen Artifizialarekiko konfiantza areagotzeko.
- Ekonomian, gizartean eta ingurumenean duten kostuaren arabera aztertuko ditu Adimen Artifizialeko sistemak.



- Ebidentzia enpirikoa erabiliko du algoritmoen kontuak emateko, bai eta haien onuren eta eraginaren berri emateko ere, hartutako erabakiak justifikatzeko. Algoritmo bat erabiltzen baldin bada banakako inpaktu bat duen erabaki bat hartzeko, gizakiek ulertzeko moduko argudioen bidez justifikatu beharko da erabakia.
- Adimen Artifizialaren gaineko goi mailako erantzulea finkatuko du, sistema osoari buruzko kontuak emateko eskumena duena.

GLOSARIOA

Adimen Artifiziala eta algoritmoak

- **Adimen Artifiziala (AA):** ez dago adimen artifizialaren definizio bakarra. Termino generiko bat da, bere barnean biltzen dituena makinei/ordenagailuei “giza portaera” (kasu honetan, adimentsua) eman nahi dieten teknologiak. Adimen Artifiziala teknologia-multzo bat da, datuak, algoritmoak eta konputazio-potentzia (kalkuluko) konbinatzen dituena.
- **Algoritmoa:** arazo edo ataza bati irtenbidea ematen dioten jarraibideen segida.

Datuen babesa

- **Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:** Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) da Europako erregelamendu bat, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Erregelamenduak indarra hartu zuen 2018ko maiatzean.
- **Datu pertsonalak:** pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazio guztia.
“Identifikatutako edo identifika daitekeen pertsona fisiko bati buruzko informazio oro (“interesduna”); pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago” (DBEOren 4. artikulua).
- **Datuen eramangarritasuna:** “Interesdunak eskubidea izango du tratamendu-arduradun bati helarazi dizkion datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzeko, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko ere” (DBEOren 20. artikulua).

Gardentasuna, datu irekiak eta datuen gobernantza

- **Gardentasuna:** herritarrei informazio publikoa ezagutzen laguntzearen ekintza. DBEOn, gardentasun printzipioak eskatzen du datuen tratamenduari buruzko informazio eta komunikazio guztiak erraz eskuratzeko eta ulertzeko modukoak izatea eta hizkera argia eta erraza erabiltzea.



- **Datuak irekitzea:** datu irekien argitalpenari egiten dio erreferentzia (Open Data). Datu irekiak lizentzia irekiarekin argitaratzen diren datuak dira, eta, beraz, edozein erabiltzailek libreki erabili, aldatu edo partekatu ditzake, edozein helbururekin (merkataritza-erabilerak barne).
- **Datuen gobernantza:** Nafarroako lurraldeko datuen kudeaketari buruzko erantzukizunak eta prozesuak behar dituen antolaketa-sistema, datuetan oinarritutako berrikuntza ahalbidetzen duena. “Datuen gobernantza” kontzeptuak barnean hartzen du Nafarroako Gobernuaren barneko datuen kudeaketa, baita kanpoko datuekin duen elkarrenergina ere.